



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

**Trintxerpen izan zen sute
larriak eragindako kalteak
arintzeko premiazko zerga
neurriei buruzko Foru Dekretu
Arau Proiektua.
Eragina zerga-bilketan eta
generoan**



1. Sarrera

Txosten honen helburua da kuantifikatzea zenbateko eragina izango duen Gipuzkoako Foru Ogasunaren zerga-bilketan Trintxerpen izan zen sute larriak eragindako kalteak arintzeko premiazko zerga neurriei buruzko Foru Dekretu Arau Proiektuak.

2. Araudiaren aldaketak

2014ko urtarrilaren 1ean Pasaiaiko Trintxerpeko barrutian izan zen suteak kalte handiak egin zituen hainbat etxetan, eta hainbat bizilagun eta saltokietan eragina izan zuen. Zehazki, Euskadi etorbideko 5 eta 7 zenbakiak kiskalita gelditu ziren.

Horregatik, sutearen eremuan kokatuta dauden etxe eta jarduerentzat honako neurriak proposatzen dira:

- Salbuespena 2014ko ekitaldian Ondasun Higiezin hiritarren gaineko Zergaren kuotetan.
- Salbuespena 2014ko ekitaldian Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kuotetan.
- Zerga zorren gerorapena bermerik gabe zuzenean eragindako subjektu pasiboentzat.

Bestalde, ezartzen da Pasaiaiko herriak udal zergetako sarreretan izango duen gutxipenaren %50a Gipuzkoako Foru Aldundiak konpentsatuko duela, lurralde horretako Aurrekontu Orokorren kontura.



3. Zerga-bilketako eragina

Guztira aurreikusten den eragina 7.406 euroko zerga-bilketa txikiagoa da. Kontuan hartuta horren %50a hartzen duela bere gain Foru Aldundiak, zerga-bilketa eragina foru-erakundearentzat 3.703 eurokoa da.

4. Genero eragina.

4.1. Txostenaren oinarriak eta xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoan onartuta dagoen Gizon eta emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 6. artikuluan dio foru administrazioei dagokiela foru legeria nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako printzipioaren arabera. Era berean, uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluan ezartzen du, foru arauen aurreproiektuak eta xedapen orokorren proiektuak prestatzeko prozeduraren barruan, genero eraginari buruzko derrigorrezko txosten bat aurkeztu behar dela eranskin gisa.



4. 2. Genero ikuspuntutik kontuan hartzeko neurriak

Proposatutako neurrien helburua da suteak sortutako kalteak neurri batean arintzea. Salbuespenen ondorioz emango den zerga zamaren gutxitzea sexuen artean banatuko da etheen jabetzen banaketaren arabera; horrela, eta hasiera batean, proposatutako neurriek ez dute inongo eraginik izango generoaren ikuspuntutik.

Eta gainera, kontuan hartuta sutean eraginez kaltetutako etxeak dauden eremua dagoeneko krisi ekonomiak zigortuta dagoela (langabezia...), zalantzarik gabe, laguntza fiskal hauek familien egoera hobetuko dute, eta ondorioz, desberdintasunak arinduko dituzte.

Donostia, 2014ko urtarrilaren 27a

AZTERLANETAKO ATALBURUA